

UDALA AYUNTAMIENTO



**Bilbao**

# ATZERRIKO IMMIGRAZIOA BILBON

## 2017

Daturik garrantzitsuenak. 2017

**26.074**

pertsona erroldatuta  
atzerriko  
nazionalitatearekin

**39.736**

pertsona erroldatuta  
atzerriko jatorriarekin

**% 7,5**

pertsona erroldatuta  
atzerriko  
nazionalitatearekin

**% 11,5**

pertsona erroldatuta  
atzerriko jatorriarekin



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

### Bilboko populazioaren bilakaera sexuaren eta nazionalitatearen arabera (2008-2017)


	Populazioa guztira			N. espainiarden pop.			Atzerriko naz. pop.		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2008	167.030	186.310	353.340	154.649	173.749	328.398	12.381	12.561	24.942
2009	168.019	186.841	354.860	153.927	172.957	326.884	14.092	13.884	27.976
2010	167.019	186.168	353.187	152.831	171.971	324.802	14.188	14.197	28.385
2011	167.176	186.080	353.256	152.122	171.271	323.393	15.054	14.809	29.863
2012	166.632	185.770	352.402	151.404	170.807	322.211	15.228	14.963	30.191
2013	165.170	184.699	349.869	150.913	170.433	321.346	14.257	14.266	28.523
2014	163.703	183.575	347.278	150.373	170.063	320.436	13.330	13.512	26.842
2015	163.106	183.172	346.278	150.357	170.221	320.578	12.749	12.951	25.700
2016	162.945	182.697	345.642	150.142	169.805	319.947	12.803	12.892	25.695
2017	162.692	182.782	345.474	149.671	169.729	319.400	13.021	13.053	26.074
2008-2017	-4.338	-3.528	-7.866	-4.978	-4.020	-8.998	640	492	1.132

Sexuaren eta nazionalitatearen aldagaiari erreparatzen badiegu, 2017ko urtarrilaren 1ean Espainiako nazionalitatea zeukan populazio osotik % 47,1 gizonezkoak zirela eta % 52,9 emakumeak zirela ikus daiteke. Horrez gain, atzerriko populazioari dagokionez, % 49,9 gizonezkoak ziren eta % 50,1 emakumeak.

2008. Urtetik Bilboko populazioak 6.062 pertsonetan egin du behera: Espainiako nazionalitatea duten 4.276 gizonezko eta 3.686 emakume. Galera hori atzerriko nazionalitatea duten 949 gizonezko eta 951 emakumezko populazioaren igoerarekin orekatu da.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017


### Bilboko populazioaren bilakaera nazionalitatearen arabera (2008-2017)



Horrenbestez, 2017ko urtarrilaren 1ean 2008. urteko data berean baino 6.062 pertsona gutxiago zeuden erroldatuta Bilbon. Horrez gain, atzerriko 26.074 pertsona daude.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Atzerriko nazionalitateko populazioaren urtez urteko hazkundera Bilbon, 2008-2017




Atzerriko nazionalitateko populazioaren urtez urteko hazkunderak Bilbon igoera arina izan du azken urtearen aldean, eta 2013. urtean hasitako beheranzko joera aldatu da.

Oro har, atzeraldi ekonomikoaren ondoren eta adierazle makroekonomikoak hobetuta, goranzko joera gertatu da fluxu migratzaileetan, hala ere, ez da izan oparoaldi ekonomikoko urteetako bezain handia.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017


Atzerriko nazionalitateko eta atzerrian jaiotako eta Bilbon errolatuta dagoen populazioaren bilakaera (2011-2017)



Atzerriko nazionalitateko pertsonak eta jatorri atzerritarreko pertsonak bereizi behar dira, gero eta gehiagotan gertatzen diren nazionalizatzeko prozesuengatik. Horrela, Espainiako nazionalitateko eta atzerrian jasotako pertsonen arteko "tarte" handituz joan da 2011. urtetik. 2017. urtean atzerriko nazionalitateko 26.074 pertsona daude, eta atzerrian jaiotako 37.457 pertsona.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Immigrazioaren bilakaera Bilbon (2008-2017) eta beste testuinguru batzuetan (2017)



Atzerriko populazioaren joerak berdin jarraitzen du, oro har, bai EAE osoan, bai Bizkaiko hiriburuan. Bestalde, lurralde historiko guztietan atzerriko nazionalitateko populazioaren proportzioak igoera arina izan arren, ia ez da aldaketa handirik gertatu.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

### Bilbon erroldatutako populazioa, nazionalitatea eta jatorria (jaioterria) (absolutuak)

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Atzerriko nazionalitateko populazioa	26.074	13.021	13.053
Atzerrian jaiotako eta Espainiako nazionalitateko populazioa	13.662	5.470	8.192
Estatuan jaiotako eta Espainiako nazionalitateko populazioa	305.738	144.201	161.537
Erroldatutako pertsonak, guztira	345.474	162.692	182.782

Bilbon atzerrian jaiotako 13.662 pertsona daude erroldatuta, eta atzerrian jaio eta Espainiako nazionalitatea duen populazioa izan ezik, populazio nazionalizatu gisa har daiteke (iaz baino 1.080 pertsona gehiago). Sexuaren arabera, nazionalizatutako populazioaren % 60 emakumeak dira, eta % 40, gizonak.


Komunitate horrek Bilboko populazioaren % 4,0 hartzen du. Pertsona horiei (atzerrian jaio diren baina gaur egun Espainiako nazionalitatea duten pertsonak) gaur egun atzerriko nazionalitatea duten pertsonak gehitzen bazaizkie, Bilboko populazioaren % 11,5ak atzerriko jatorria duela ikus daiteke, eta gainerako % 88,5ak Espainiako Estatukoa. Datuak iazkoekin alderatzen baditugu, naturalizazioen igoera arina gertatu da eta migrazio mugimenduak egonkortu dira (atzerrian jaiotako populazioaren % 3,6 eta atzerriko populazioaren % 11,1 2016. urtean).

Nazionalizazioen ondorio hori dela eta, ezinbestekoa da nazionalitatearen aldagaiari ez ezik, jatorriaren aldagaiari ere arreta jartzea. Txosten honetan, atzerriko jatorria aioletzen dugunean, Espainiako nazionalitateko eta atzerrian jaiotako pertsonen buruz ari gara.



## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017 - Inmigración extranjera en Bilbao. 2017

Atzerriko jatorria edota nazionalitatea duen populazioa, jaioterriaren arabera




Kolonia jatorriko populazioa (12,3%) eta Bolivia (10,7%) kopuru handienak dituzte, atzerriko jatorria edota nazionalitatea duen populazioa kontutan hartzen dugunean.

Jarraian beste hauek daude: Maroko (7,3%), Espainia (5,7%), Errumania (5,5%), Ekuador (4,6%), Txina (4,5%) eta Paraguay (4,2%).

Beste jatorri batzuk ere aipatu daitezke, batez ere, Latinoamerikakoa: Nikaragua, Venezuela, Brasil, Argentina, Peru, Cuba...

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Atzerriko jatorria duen populazio nazionalizatua, jatorrizko nazionalitatearen arabera




Grafikoaren nazionalitateak atzerriko jatorria duten eta nazionalizatu diren pertsonen 20 nazionalitate handienak dira.

Ikusten denez, Kolonbiako populazioa da alde handiarekin ugariena, eta atzetik doazenak bikoizten ditu: Bolivia eta Ekuador. Bi horiek, bidenabar, hurrengo nazionalitateak bikoizten dituzte. Boliviako jatorria daukaten pertsonen nazionalizazioen jokabide nabarmendu behar da, izan ere, azken urteetan handitu egin dira. Horrela, 2017. urtean nazionalizazioen % 13,2 izan dira.

Nazionalitate horien artean ez dira jatorri amerikarrekoak bakarrik nabarmentzen; baita Europakoak ere, hala nola Frantzia, Alemania, Errusia, Erresuma Batua edo Portugal.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017


Ordezko nazionalitate nagusien feminizazio hazkundearen prozesua, 2017 (%)




Ordezko nazionalitate nagusiak kontuan hartuz, iazko eredua errepikatu da, baina aurten Honduras sartu da, feminizazio-maila handia izan duena.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Espainiako JATORRIA duen populazio bilbotarren adin piramidea, 2017



Atzerriko JATORRIA duen populazio bilbotarren adin piramidea, 2017




■ Emakumea, Espainiako jatorria   ■ Gizona, Espainiako jatorria   ■ Emakumea, atzerriko jatorria   ■ Gizona, atzerriko jatorria

Adierazi dugun moduan, atzerriko populazioari buruz ari garenean beharrezkoa da jatorriei buruz gehiago hitz egitea, eta ez nazionalitateari buruz.

Espainiako jatorriko eta Bilboko atzerriko populazioaren piramideen eta haien adin-egituraren grafikoek aurreko taula eta grafikotan deskribatu ditugun aldeak agerian uzten dituzte: jatorri espainiarreko populazioa askoz ere zaharragoa da eta mendekotasun-tasa gero eta txikiagoa da (persona aktibo gutxiago mendekotasunei laguntzeko), eta jatorri atzerriko populazio gehiena potentzialki aktiboak eta ugalkorrak diren adin tartetan kontzentratuta dago.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

### Bilboko populazio osoaren adin piramidea, JATORRIAREN arabera (2017)



Espainiako eta atzerriko jatorria duten populazioen populazio piramideak multzokatuz, ikus daiteke atzerriko populazioaren ekarpena gutxi gorabehera 25 urtetik aurrera hasten dela nabarmena izaten, eta gehiago emakumeen kasuan gizonezkoen kasuan baino.

Ekarpen hori, adin tarte batzuetan esanguratsua den arren, ez dirudi nahikoa izango denik Bilboko populazioaren piramidea orekatzeko une honetako joeren erritmora, piramide itxura izan beharrean upel itxura duelako, eta nahikoa ez dirudien ordezkatzeari falta zaiolako oinarrian.

### MENPEKOTASUN TASA\* JATORRIAREN ARABERA




BIZTANLERIA AKTIBOA  
16 eta 64 urte bitartea



BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA  
16 urte baino gutxiago  
eta 64 urte baino gehiago

#### ESPAINIAKO JATORRIA



10 PERTSONA  
AKTIBOKO  
6,6 EZ AKTIBO



1,54

#### ATZERRIKO JATORRIA



10 PERTSONA  
AKTIBOKO  
1,9 EZ AKTIBO



5,35


MENDEKOTASUN-TASA

\* Mendekotasun-tasa: 16 eta 64 urte arteko zenbat pertsona dauden 16 urtetik beherako eta 64 urtetik gorako pertsonako.

Adinari buruzko datuek atzerriko jatorriko populazioaren mendekotasun baxuaren transferentzia berresten dute; jatorri espainiarra duen populazioetan mendekotasuna partzialki arintzen duena. Azken horren mendekotasun handia (1,54) atzerriko jatorrikoa duen populazioaren mendekotasun baxuak orekatzen du hein batean (5,35). Hau da, jatorri espainiarra duen populazioan 1,54 pertsonak mendekotasuna duen pertsona baten beharrez aurre egin behar die, eta atzerriko jatorria duen populazioarne kasuan, berriz, 5,35 pertsonak.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Atzerriko JATORRIA duen populazioaren ehunekoa Bilboko barrutietan,  
HANDIENETIK TXIKIENERA antolatuta. 2017\*




\* Barrutietan SAKABANATUTAKOAK ezabatu egin dira, ez direlako garrantzitsuak.

Jatorri atzerritarreko pertsona guztiak kontuan hartzen baditugu (atzerriko nazionalitatekoak edota atzerrian jaiotakoak), ehunekorik handienak auzo hauetan daude: Bilbo Zaharra (San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra). Jarraian, Ibaiondo eta Errekaldeko barrutietatik etorritako beste auzo batzuk daude.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

### Atzerriko NAZIONALITATEKO populazioaren ehunekoaren bilakaera Bilboko barrutietan. 2017




Atzerriko nazionalitateko populazioak barrutietan duen banaketari dagokionez, igoera arina ikusten da zenbait barrutietan: Errekalde (+0,5 puntu), Uribarri (+0,3 puntu) edo Begoña (+0,3 puntu) nagusiki, hala ere, ez dago joera aldaketa argirik aurreko urteen aldean. Ibaiondo eta Abando barrutietan beheranzko joera eten da eta geldialdian dago.



## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Atzerriko NAZIONALITATEKO populazioaren ehunekoa, Bilboko barrutien arabera:  
2008 eta 2017



2008-2017 aldian atzerriko nazionalitateko populazioa % 7,1etik % 7,5era pasa da (+0,4 puntu).

Hazkunderik handiena izan duen barrutia Errekalde izan da, % 8,6tik 2008an % 10,6ra pasa delako 2017an (+2 puntu). Joera positiboa duten beste bi barrutiak Begoñakoa (+1,4), Uribarrikoa (+1,0) eta Otxarkoaga-Txurdinagakoa (+0,7) da. Kontrako aldean ditugu Ibaiondo, Abando eta Deustu, atzerriko populazioa galdu dutelako (-0,9, -0,6 eta -0,3 puntu hurrenez hurren).

Tartean Basurtu-Zorrotza barrutia, 2008ko balio bera duena.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

---

Atzerriko udalerrri bat jatorritzat (alta) edo helburutzat (baja) daukaten egoitza aldaketen bilakaera Bilbon 2005-2016

	Altak	Bajak	Saldoa
2005	4.036	282	3.754
2007	4.906	437	4.469
2009	2.997	532	2.465
2011	2.769	665	2.104
2013	1.623	786	837
2015	2.547	814	1.733
2016	3.470	761	2.709

2016. Urtean atzerriko udalerrri batetik etorritako 3.470 pertsonen alta eman zen Bilboko erronda, Bilbon erroldatuta egon eta atzerriko udalerrri batera bideratutako pertsonen kasuan, 761 baja izan ziren.

Azken urteetako bilakaerak erakusten duenez, 2013. urtetik atzerriko udalerrri batetik datozen alta kopuruak gora egin du. Bestalde, azken urtean, aldatu egin da helburu gisa atzerriko udalerrri bat duten bajeen igotzeko joera, 2007. urtetik gertatzen zena.

## Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2017

Bilboko eremu geografikoen arabera egoitza baimena duen atzerriko populazioaren zenbatespena

	Bilbon erroldatutako p.			Ratioa	Zenbatespena
	Gizonak	makumean	Guztira		P. erregularizatua
	13.021	13.053	26.074	0,91	23.727
<b>Europa</b>	<b>2.451</b>	<b>2.660</b>	<b>5.111</b>	<b>1,00</b>	<b>5.111</b>
EB-15	1.057	794	1.851	1,00	1.851
EB-25	59	100	159	1,00	159
Errumania, Bulgaria eta	1.137	1.409	2.546	1,00	2.546
Gainerako Europa	198	357	555	0,67	372
<b>Afrika</b>	<b>4.696</b>	<b>2.257</b>	<b>6.953</b>	<b>0,73</b>	<b>5.076</b>
Magreb	2.430	1.050	3.480	0,77	2.680
Gainerako Afrika	2.266	1.207	3.473	0,67	2.327
<b>Amerika</b>	<b>4.134</b>	<b>6.815</b>	<b>10.949</b>	<b>0,68</b>	<b>7.445</b>
Ipar Amerika	83	107	190	0,84	160
Latinoamerika	4.051	6.708	10.759	0,67	7.209
<b>Asia</b>	<b>1.712</b>	<b>1.301</b>	<b>3.013</b>	<b>0,96</b>	<b>2.892</b>
Txina	1.016	976	1.992	1,00	1.992
Asiako beste herrialde	696	325	1.021	0,82	837
<b>Ozeania</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>9</b>	<b>1,00</b>	<b>9</b>
<b>Apatridak eta jasogabeak</b>	<b>21</b>	<b>18</b>	<b>39</b>	<b>0,11</b>	<b>4</b>

Administrazio-egoera erregularrean dauden pertsonen kopuruari buruz Barne Ministerioak Bizkairako emandako datuetan oinarrituz, Bilbon erroldatutako atzerriko nazionalitatea duten 26.074 pertsonen kopuru osotik, 23.727 pertsona egoera erregularrean egon daitezke, hau da, 0,91ko ratioa, iaz baino zertxobait handiagoa dena (0,85).

Lan eta ekonomiaren krisialdiaren, eta bertan bizi diren pertsonen nazionalizazioaren eta jatorrizko herrialdera itzultzeko aukeraren ondorioz, erregularizazioaren ratioa bat ingurukoa da. Edonola ere, datu horiek zuhertasunez aztertu behar dira, ez baitu udal mailako daturik.

### Ondorio nagusiak

1. Datuen arabera, badirudi fase berri batean gaudela: etorkinen etorrera moteldu eta atzerriko nazionalitateko edota jatorriko populazioa egonkortu den aldi bat igarota, badirudi atzerriko immigrazioaren hazkunde handiko beste fase batean gaudela, eta beraz, Bilboko populazioaren aniztasuna ere handitzen ari dela. Ikusiko dugu hurrengo urteetako datuek hipotesi hori bermatzen duten.
2. Gure auzoen aniztasunak gorantz jarraitzen du: Bilbon bizi diren atzerriko pertsonen ehunekoa 2017. urtean % 7,5 da, 2016an baino zertxobait handiagoa. Zifra horri Espainiako nazionalitatea duten baina atzerrian jaio diren pertsonak gehitzen badiogu, kanpoko pertsonen zifra Bilbon % 11,5era handitu da, 2016an baino lau hamarren gehiago. Datuen arabera, gero eta handiagoa den aniztasun horri lehentasuna ematen jarraitu behar da.
3. Profirik ohikoena latinoamerikar emakumearena da, gure lan-merkatuaren beharrekin bat.
4. Oro har, atzerriko populazioaren edo atzerriko jatorria duen populazioaren egoitza-mugikortasunerako joerek lotura handiagoa dute estatus, estratifikazio sozial eta izaera sozioekonomikoa duten faktoreekin.

UDALA AYUNTAMIENTO



**Bilbao**

---